

Alegiako kantariak

Xefe Balerdi Munduate

- Alegian jaio zen, 1947/10/03an.
- Hamar bat urterekin hasi zen parrokiako tripleetan kantatzen, D. Pio Montoiarekin eta koruan kantatzen zuten gizonezkoekin batera.
- 17-18 urte zituela, herrian musikarako giro handia sortu zen, orduan antolatzen ziren ekitaldietan abesten hasi zen, eta antzerkia egiten ere bai.
- Garai horretan, herriko festetan jaialdiak antolatzen zituzten, eta “Ez dok amairu” taldea eta beste abeslari euskaldunak ekartzen zituzten; abeslari bakarlariekin txapelketak ere egiten zituzten, baina Xefe ez omen zen aurkeztu horietara.
- Urtean zehar musika-ekitaldi asko izaten ziren txistulariekin, pianistekin eta beste musikari batzuekin eta herrietara ere joaten ziren saio horiek ematera. Xefek bakarrik kantatzen zuen eta Julen Goikoetxearekin ere bai.
- 1968an bukatu omen zen beretzat lan hori; berak dioenez, “hotelera eraman ninduten eta...”). Handik aterata, soldadutza egin behar izan zuen.
- Alegian sortu zen Zortzikote edo Otxotearekin ere kantatu zuen.
- Txintzarri abesbatza sortu zenetik bertan kantatu du. Abesbatzako bakarlaria da.
- Alegian egiten diren jaialdi eta ekitaldietan ere parte hartzen du, bere ahots zoragarriarekin.

Julen Goikoetxea Gurrutxaga

- Alegian jaio zen, 1949/05/25ean.
- Industri ingeniaria. Eusko Jaurlaritzako Uraren Euskal Agentziako burua (Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa).
- Musika:
 - Alegian hasi zen musika ikasten, eta Tolosan Salus Balzarekin pianoa jotzen ikasi zuen.
 - Bere kabuz ikasi zuen gitarra jotzen.
 - Alegian organoa jotzen ere aritua da, Xerapio Letamendiaren ondoren.
 - Kasualitatez hasi zen musikarekin:
 - Ahoko soinua oparitu zioten eta jotzen ikasi zuen.
 - Iñaki Usabiagak utzi zion gitarra; gitarra jotzen ikasteko metodoa erosi eta ikasi egin zuen.
 - Koadrilarekin eta zenbait ekitalditan jotzen zuen eta kantatu ere bai.
 - Ikastolako haurrekin jaialdi bat prestatu zuten, ikastolako obrak egiteko dirua ateratzeko (Migel Tobar (akordeoia), Julen, Xefe, Tomax, Inaxio eta haurrak). Herriz herri ibili ziren horrekin.
 - Xefek eta biek kantatu zuten, batzuetan batera eta besteetan banaka jaialdi berean. “Ez dok amairu”ren abestiak eta umeentzat euskaratutako abestiak kantatzen zituzten.
 - Hainbat urtetan ibili ziren horretan, eta ikastolako obretarako dirua atera ere egin zuten.
 - Alegian kantu-txapelketa bat izan zen eta berak parte hartu nahi ez izan arren, apuntatu egin zuten. Kantu frantsesa hartu zuen eta D. Martin Iturbek euskaratuta kantatu zuen, irabazi ere bai. Horren ondoren, inguruko herrietan ibili zen gitarra jo eta kantatzen. 21-22 urterekin, ikasten ari zen garai hartan, bata edo bestea aukeratu beharra zuenez, ikasketak aukeratu zituen.

- Txintxarri abesbatzako partaide ere izan zen, Alegiako alkatetza hartu zuen arte.

Jose Manuel Garmendia Uranga (Piti)

- Alegian jaio zen, 1962/06/25ean.
- Zientzia erlijiosoetan lizentziatua.
- Musika txikitan ikasi zuen, Alegian.
- Ziklox Garaialde taldeko abeslaria izan zen.
- Idaztea beti gustatu zaio eta abestientzat letrak ere egiten zituen, horregatik eskatu zioten taldean sartzeko. Taldeak abesten zituen abesti gehienek letrak berak idatzitakoak dira.

Alegiako taldeak

Alegiako banda

Alegian Musika-banda egon zela ikus daiteke zenbait liburu eta dokumentutan.

- Jose Ignacio Iglesias jaunak Udaleko artxiboetan aurkitutakoaren berri ematen du: *“(17 de abril de 1869)...Habiendo manifestado algunos jóvenes de Alegría el querer hacer una “Charanga”, y para comprar los instrumentos proponen...”*
“...dicho Francisco Zabala daba las clases a los que componían la “Charanga” pagando dichas clases el Ayuntamiento”.
“En el año 1870 dicha “Charanga” tocó en la Misa del Gallo y en la Misa Mayor el día 24 de Diciembre”
- Angel Oyarzabal jaunak idatzitako “ALEGIA bere kondairako bi gizaldi, 1786-1986” liburuko 76. orrialdean, honela dio: *“Mendeurren honetako lehen-hamarrurtekoan, bazen gure herrian Angel Olano jaunak sortu eta honen gidaritzapean aritzen zen hamabost bat lagunek osatutako musika-taldea. Zuzendari honek, gero bota zen “Kanpañenea” etxean solfeoa erakustez gainera, garai haietan hain onuragarriak ziren orotariko ikasketak ematen zizkien.”*
- Bildutako informazioaren arabera, oraingoz, bandako bost kideren izenak aurkitu dira:
 - o Miguel Olano Olano. Zuzendaria zen.(Altzo, 1866/06/27-Alegia, 1932/05/30)
 - o Laureano Zubeldia Gorostidi (Alegia, 1881/12/30-1960/02/16). Bonbardinoa eta txistua jotzen zituen.
 - o Pedro Antonio Hipolito Joubert Egia (Alegia, 1873/08/12-?).
 - o Antonio Artola Goikoetxea (Amezketeta-Ugarte, 1896/03/02-Alegia, 1946/02/18). Klarinetea jotzen zuen.
 - o Bixente Gastesi Iturrioz (Alegia, 1891/08/22-Argentina, ?).
 - o

Ziklox Garaialde taldea

- Kideak:
 - o Iñaki Navarro Etxeberria (1964): gitarra.
 - o Xabi Navarro Etxeberria (1963): bateria.
 - o Jose Manuel Garmendia “Piti” (1962): ahotsa; Aitor Irazustabarrenak ordezkatu zuen.
 - o Paulo Garaialde Salsamendi (1964-1995): baxua; Mikel Navarro Etxeberriak ordezkatu zuen.

Hau dio taldeari buruz Xabi Navarrok:

“Taldea 1986an sortu genuen. Anaiak eta biok gitarra jotzen genuen, baina besterik ez. Herriko beste gazte batzuk, tartean gure beste anaia batek, talde bat sortzeko materiala eta entseguetarako lokala lortu zuten, eta guk, ahal genuenean, trasteak kendu eta bertsioak jotzen genituen: Pink Floyd, The Beat, Police..., horrela hasi ginen. Ez dut gogoratzen instrumentuen banaketa nola egin genuen, baina ni bateriaz arduratu nintzen.

Laster hasi ginen, asuntua serio hartuta, gure kantuak egiten, Pauloren aitaren tailerrean egiten genituen entseguak, eta Tolosaldeako jendea enteratu zenean, Txaramako gaztetxean jotzea proposatu ziguten. Hura izan zen gure lehenengo kontzertua. Ska kaotiko samarra egiten genuen, nahiko musikari exkaxak ginen eta, baina gure kontzertuak festa ederrak ziren, juergarako aitzakia ederra, eta horrek bultzatu gintuen jarraitzera.

Gure material propioa lortzeko helburuarekin, herriko jaietan txosna bat muntatzea pentsatu genuen, 1986ko udan. "Ziklox Garaialde" taldearen aldeko txosna izan zen, eta bertan kontzertuak eta guzti antolatu genituen: Tapia eta Leturia, Txikitixa Tarratada, Fir na Turba...; herritarren erantzuna izugarria izan zen, jende guztia gurekin lanerako prest, txandak egiten batzuk, korrante elektrikoa eramaten edo garraiatzen besteak..., krixton festa!! Hurrengo urtean berriz ere errepikatu genuen, noski, eta 1988an, taldea utzia genuenez, erreleboa gazte asanbladak hartu zuen. Gaurko festa alternatiboen hazia jarri genuen, beraz.

Taldeak iraun zuen urte parean, 40 bat kontzertu eman genituen, gutxi gorabehera: Tolosa, Txarama, Hernani, Gasteizko Izurtzako jaietan, Ordizia, Alegia...

1987an, Ziklox Garaialde taldea utzi eta laster, anaia eta biok Hernaniko

MADARIKATUAK taldean hasi ginen jotzen, berak baxua eta nik bateria, 1990ean taldea desegin zen arte.”

Ziklox Garaialde taldearen bigarren aroa

■ Taldearen osaketan aldaketak egon zirenez, Pablo Garaialde hil zen eta Jose Manuel Garmendiak taldea utzi zuen, taldeak geldialdia izan zuen, baina bigarren aldiz ere plazaratu zen “Ziklox Garaialde 2.0” izenarekin. Talde horretako kideak honako hauek dira:

- Iñaki Navarro Etxeberria
- Jabi Navarro Etxeberria
- Aitor Irazustabarrena
- Mikel Navarro Etxeberria
- Iñigo Balerdi
- Karlos Gesteira

■ Jaialdi bateko abestiekin grabatutako audioa ere egin zuten.